



SASOIAN JARTZEKO TALASO ZIRKUITURAKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA

ERRESERBAK

- Derrigorrezko erreserba beti telefonoz, harrera-lekuan edo webean.

HAURRAK

- Zirkuitura sartzeko 6 urte eduki behar dira gutxienez.
- 16 urtez azpiko neska-mutilek pertsona heldu batekin joan behar dute. Haurrak beren guraso edo zaintzaileen erantzukizunpean egongo dira.
- Haurrak ordubetez baino gehiagoz uretan ez egotea gomendatzen da, eta debekatuta dago 14 urtez azpikoak saunetara, lurrun-bainuetara eta jacuzzira sar daitezela.

ORDUTEGIA- DENBORA

- Zirkuitua 8:30etatik 20:15etara zabalik dago.
- Erabilpeneko denbora sarrerako kontroletik pasatzean hasi eta handik irtetean amaitzen da. Gehiegizko denbora kobratu egingo da: 2 euro 30 minutuko tartetan.
- Zabalik dago egunero, abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik. Zentroa 15 egunez ixten da urtero, ikuskapen teknikoak egiteko.

BEHARREZKO EKIPAMENDUA

- Bainujantzia (edo bikini), txanoa eta eskuoihala; bainujantziak eta txanoak salgai ditugu, eta eskuoihalak alokairuan.
- Telazko txanoaren prezioa: 3,00€ / Eskuoihalaren alokairua: 1,50€ / Bainu-txabusinaren alokairua: 3,00€.

- Txinalak aldageletan eta dutxetan bakarrik erabil daitezke; Sasoiari jartzeko Talaso Zirkuitua oinutsik egingo da, eta, behar izanez gero, harrera-lekuan salgai dauden artilezko oinetakoak erabil daitezke.

- Enpresak ez du inolako erantzukizunik hartzen armairuetan gordetzen ez diren objektuei dagokienez.

OHARRAK

- Irristaden ondoriozko istripuak bezeroaren erantzukizuna dira. Hori ekiditeko, kontuz ibili behar da, lurra bustita dagoelako. Seguru sentitzen ez bazara, instalazioetako eskulekuak erabil ditzakezu bainuetan sartzeko eta irteteko.

- La Perla erlaxatzeko eta sasoiari jartzeko zentro bat da, eta, beraz, gutziz debekatuta dago zarata egitea, lasterka ibiltzea edo igerilekuak jolastoki moduan erabiltzea.

- Igerilekuek 1 m eta 39 cm-ko sakonera dute gehienez; igeri egiten ez badakizu, zentroko arduradunei jakinarazi behar diezu.

- Zalantzarik edo beharrik izanez gero, igerilekuetan monitore bat dago laguntzeko.

- Zentroaren sarreran nahitaez bete beharreko arau orokorrak daude.

- Sarrera ukatzeko eskubidea dago.

LA PERLA SASOIAN JARTZEKO ETA TALASOTERAPIAKO ZENTRO BAT DA, BERAZ, JARDUERA HASI AURRETIK ZURE OSASUNARI BURUZ ZALANTZARIK BADUZU, GURE LANGILEEI GALDE IEZAIEZU.

2021rako prezioak, akats tipografikoak eta omisioak kenduta.